



**Euskal Autonomia
Erkidegoko tarteko eta
kostaldeko uren egoera
ekologikoaren jarraipen-sarea
Laburpen txostena.
2018ko kanpaina.**

AZTI-Tecnalia

DOKUMENTU-MOTA: Laburpen-txostena

DOKUMENTUAREN IZENBURUA: Euskal Autonomia Erkidegoko tarteko eta kostaldeko uren egoera ekologikoaren jarraipen-sarea. Laburpen txostena. 2018ko kanpaina.

NORK EGINA: AZTI-Tecnalia

EGILEAK: Ángel Borja, Juan Bald, Javier Franco, Joana Larreta, Iratxe Menchaca, Iñigo Muxika, Marta Revilla, J. Germán Rodríguez, Oihana Solaun, Ainhize Uriarte, Izaskun Zorita, Idoia Adarraga, Florencio Aguirrezabalaga, Juan Carlos Sola, Igor Cruz, Mikel Aitor Marquiegui, Julián Martínez, José M^a Ruiz, María Cano, Aitor Laza-Martínez eta Alberto Manzanos.

DATA: 2019ko ekaina

Aurkibidea

Euskal Autonomia Erkidegoko tarteko eta kostaldeko uren egoera ekologikoaren jarraipen-sarea.

Laburpen txostena. 2018ko kanpaina.

1. Sarrera.....	4
1.1. Aurrekariak	4
1.2. Jarraipena egiteko sarearen diseinua.....	6
1.3. Egoeraren azterketa	8
2. Emaitzak.....	12
2.1. 2018ko egoeraren ebaluazioa.....	12
2.2. 2013-2018 aldiaren egoeraren azterketa	14
3. Ondorioak	28
4. Erreferentziak.....	30
5. Eranskinak	31

1.

Sarrera

1.1. AURREKARIAK

Uraren Euskal Agentziaren Estatutuen arabera, honi dagokio uren analisia, eta ur-kantitate eta ur-kalitate programen helburuen jarraipena eta kontrola egitea. Lan hau ezinbestekoa da baliabide hidrikoen eta ustiapen hidraulikoen plangintza eta kudeaketarako. Are gehiago, gainontzeko sailekin elkarlanean, plangintza hidrologikoa aurrera eramateko ezinbestekoak diren helburuen proposamen eta jarraipenak egiteko ere baliogarria da.

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Administrazio Hidraulikoa EAEko tarteko eta kostaldeko uren egoerari buruzko garrantzizko informazioa biltzen ari da 1994. urtetik. Hasieratik, sare honen kontrolaren antolamendua Uraren Esparru Zuzentzarauak (aurrerantzean UEZ¹) beranduago egindako eskakizunen antzekoa izan da.

Hasteko, Demarkazio bakoitzeko ingurumenaren, eta gizarte eta ekonomiaren ezaugarri eta egoeraren egungo diagnosia egin behar zela zehazten zuen UEZak 5. artikuluan. Gainera, kontuan hartu behar zen 6. artikuluan aurreikusten ziren eremu babestuen erregistroa. Guzti hori, txosten batean bildurik, Europako Erkidegoko administrazioa bidali behar zen 2005eko martxoaren 23.a baino lehen.

Horretarako, UEZaren Ezarketarako Estrategia Bateratua jarri zen abian. Honela, hainbat aditu-talderen lanaren ondorioz, 5. artikuluan eskatutakoa era homogeneoan betetzeko gidak idatzi ziren; baita gerorako aurreikusitako beste gai batzuetarako ere.

Gida horiekin batera, EAEko Administrazio Hidraulikoak, 2004ko abenduan, "2000/60/EE Uraren Esparru Zuzentzarauaren 5. eta 6. artikuluei buruzko txostena" argitaratu zuen, Barne Arroen Demarkazioaren esparrurako, 1994ko uztailaren 1.an eman zen eskumenen eskualdatzean, ur-kontuetan administrazio autonomikoaren eskumen eskusiboko espazioa lurraldeki definitu zenaren arabera.

Bestalde, UEZaren 8. artikulua arabera, 5. eta 6. artikuluei buruzko txostena aintzat hartuz, estatu-kideek uren egoeraren jarraipenerako programak ezarri behar zituzten Demarkazio hidrologiko bakoitzean ikuspegi orokor, koherente eta osoa lortzeko. Programa horiek indarrean egon behar zuten 2006ko abenduaren 22.a baino lehen, eta haien berri eman behar zitzaion Batzordeari 2007ko

¹ 2000/60/EE Zuzentzaraua, 2000ko urriaren 23koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, uren gaineko politikarako erkidegoko jardura-esparrua ezartzen duena;

martxoaren 22.a baino lehen (15. artikulua).

Erabilgarri zegoen informazioarekin, eta UEZaren 8. eta 15. artikulua betetzeko, 2006. Urte-bukaeran “EAEko azaleko ur-masen egoeraren jarraipen-sarea” birdiseinatu zen. Tarteko eta kostaldeko ur-masen jarraipenaren estrategia berria 2007ko kanpainan hasi zen eta “Euskal Autonomia Erkidegoko tarteko eta kostaldeko uren egoera ekologikoaren jarraipen-sarea” sortu zen (hemendik aurrera, *Jarraipen-sarea*).

Gaur egun, EAEko tarteko eta kostaldeko uren egoera ekologiko eta kimikoaren ebaluazioari dagokionez, kontuan hartu behar dira 817/2015² Errege-Dekretua eta 1/2016³ Errege-Dekretua. 1/2016 Errege-Dekretuan Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren gai batzuk azpimarratzen dira lan honetarako garrantzitsuak direnak, hala nola, tarteko eta kostaldeko ur-masen identifikazioa, mugatzea eta tipifikazioa, jarraipen-programak eta kontrol-neurriak, metodologiak, ingurumen-kalitatearen helburuak... Beste aldetik 817/2015 Errege-Dekretuak ondokoa ezartzen du:

- Azaleko ur-masen egoeraren jarraipen-programen diseinurako eta eremu babestuen kontrolen ezarpenerako oinarritzko irizpideak.
- Azaleko uren egoera kimiko ona erdiesteko lehentasunezko substantzien eta beste kutsatzaileen Ingurumen-Kalitateko Arauak (IKAk).
- Kutsatzaile espezifikoaren IKAk ezartzea eta azaleko uren egoera ekologiko ona edo ahalmen ekologiko ona lortzeko kutsatzaile espezifikoaren IKAk kalkulatzeko prozedura zehaztea.
- Azaleko ur-masen egoera edo ahalmen ekologikoa sailkatzeko erreferentziazko baldintzak eta kalitate biologiko, fisiko-kimiko eta hidromorfologikoen adierazleen egoera-klaseen arteko mugak.

² 817/2015 Errege Dekretua, irailaren 11koa, azaleko uren egoeraren eta ingurumen-kalitateari buruzko arauen jarraipena eta ebaluazioa egiteko irizpideak ezartzen dituena

³ 1/2016 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, zeinaren bidez, Kantauri Mendebaldeko, Guadalquivirreko, Ceutako, Melillako, Segura eta Jucarreko eta Espainiako zatiko Kantauri Ekialdeko, Miño-Sileko, Dueroko, Tajoko, Guadianako eta Ebroko Demarkazio Hidrografikoen Plan Hidrologikoen berrikuspena onartzen dena

1.2. JARRAIPENA EGITEKO SAREAREN DISEINUA

EAEEn 1/2016 Errege-Dekretuak 14 tarteko ur-masa identifikatzen eta mugatzen ditu, lau , ur-masa oso aldatuak direlarik (Nerbioi barrualdea eta kanpoaldea, Oiartzun eta Urumea), eta lau kostaldeko ur-masa natural (1. irudia, 1. taula eta 2. taula).


Halaber, tarteko ur-masei dagokienez, hiru tipologia identifikatu dira (antzeko ezaugarriak dituzten taldeak) eta tipologia bakarra kostaldeko ur-masentzat. Tarteko ur-masa oso aldatuen kasuan, ur-masa naturalen antzekotasunagatik esleitzen zaie tipologia.

UEZaren 8. artikulua erantzungo erantzunez, 2007tik jarraipen-estrategia egonkorra ezarri da, non lagintze-puntu eta aztertu beharreko elementuak finkatu baitiren (2. irudia):

- Lagintze-puntu horietan, ur-, sedimentu-, ornogabe bentiko- eta fitoplankton-laginak jasotzen dira (16 kostaldeko uretan eta 32 tarteko uretan) (ikus eranskina).
- Arrainen azterketarako trantsektuak tarteko uretan. Ikerketa honetan, urte bakoitzeko lau estuario lagintzen dira; honela, hiru urteko ziklo bakoitzean EAEEn dauden 12 estuarioen azterketa burutzen delarik (guztira, 14 ur-masa).
- Makroalgen azterketarako lagintze-eremuak tarteko eta kostaldeko uretan, arraiekin jarraitzen den estrategia bera jarraituz, hiru urtean behin lagintzen direnak. Tarteko uren kasuan, ur-masa bakoitzaren azterketa estentsiboa egiten da.
- Egoera kimikoaren azterketarako lagintze-puntu operatiboak bereiztu dira egoera kimiko ona ez lortzeko arriskua dagoen lekuetan. Honela, 2007tik aurrera, lagintze-puntu operatibo horietan, hilero lagintzen dira urak substantzia batzuk neurtzeko.
- EAEEn Europar Itsas Estrategiaren Zuzentarauari erantzuna emateko, hiru lagintze-puntu daude kontinente-plataforman.



1. irudia Euskal Autonomia Erkidegoan mugatutako 18 tarteko eta kostaldeko ur-masen banaketa erakusten duen mapa.



2. irudia Euskal Autonomia Erkidegoko tarteko eta kostaldeko uren egoera ekologikoaren jarraipen-sareko lagintze-puntuen kokapena azaltzen duen mapa.

1. taula Euskal Autonomia Erkidegoan identifikatu diren kostaldeko ur-masak, eta dagozkien tipologia eta kontrol-guneak. Tipologiaren kodea: AC-T12= Kantauri Ekialdeko kostaldeko ur atlantikoak, azaleratzerik gabe agerian daudenak. UMOA: , ur-masa oso aldatua.

Kodea	Ur-masa	UMOA	Tipologia	Erlazionaturiko lagintze-puntuak
ES111C000030	Kantabria- Matxitxako	Ez	AC-T12	L-N10, L-N20, L-B10, L-B20
ES111C000020	Matxitxako- Getaria	Ez	AC-T12	L-OK10, L-L10, L-L20, L-A10, L-D10, L-U10
ES111C000010	Getaria- Higer	Ez	AC-T12	L-O10, L-O20, L-OI10, L-OI20, L-BI10
ES111C000015	Monpas- Pasaia	Ez	AC-T12	L-UR20

2. taula Euskal Autonomia Erkidegoan identifikatu diren tarteko ur-masak, eta dagozkien tipologiak eta lagintze-puntuak. Tipologien kodeak: AT-T08= Estuario atlantiko intermareala ibaiaren nagusitasunaz estuarioaren gainetik, ; AT-T09= Estuario atlantiko intermareala itsas nagusitasunaz; eta AT-T10= Estuario atlantiko azpimareala. UMOA: , ur-masa oso aldatua.

Kodea	Ur-masa	UMOA	Tipologia	Erlazionaturiko lagintze-puntuak
ES111T075010	Barbadun	Ez	AT-T09	E-M5, E-M10
ES111T068020	Nerbioi kanpoaldea	Bai	AT-T10	E-N20, E-N30
ES111T068010	Nerbioi barnealdea	Bai	AT-T10	E-N10, E-N15, E-N17
ES111T048010	Butroe	Ez	AT-T09	E-B5, E-B7, E-B10
ES111T046020	Oka kanpoaldea	Ez	AT-T09	E-OK20
ES111T046010	Oka barnealdea	Ez	AT-T09	E-OK5, E-OK10
ES111T045010	Lea	Ez	AT-T09	E-L5, E-L10
ES111T044010	Artibai	Ez	AT-T09	E-A5, E-A10
ES111T042010	Deba	Ez	AT-T08	E-D5, E-D10
ES111T034010	Urola	Ez	AT-T09	E-U5, E-U8, E-U10
ES111T028010	Oria	Ez	AT-T09	E-O5, E-O10
ES111T018010	Urumea	Bai	AT-T08	E-UR5, E-UR10
ES111T014010	Oiartzun	Bai	AT-T10	E-OI10, E-OI15, E-OI20
ES111T012010	Bidasoa	Ez	AT-T10	E-BI5, E-BI10, E-BI20

1.3. EGOERAREN AZTERKETA

Azaleko uren egoeraren sailkapenari dagokionez, 817/2015 Errege-Dekretuak eguneratzen duen uztailak 6ko 907/2007 Errege-Dekretuaren 26. artikuluan onartzen den Plangintza Hidrologikoaren Araudiak (PHA aurrerantzean) honela dio:


2. Azaleko uren **egoera ekologikoa** oso ona, ona, neurrizko, eskas edo txar bezala sailkatuko da.
3. Azaleko uretako masen egoera ekologikoa sailkatzeko **kalitate-elementu biologiko, kimiko eta fisiko-kimikoak eta hidromorfologikoak** erabiliko dira V eranskineko araudi definizioen arabera, zeinen adierazleak, 817/2015 Errege Dekretua, irailaren 11koa, azaleko uren egoeraren eta ingurumen-kalitateari buruzko arauen jarraipena eta ebaluazioa egiteko irizpideak ezartzen dituen.
4. Ur-masa artifizial eta oso aldatutakoei aplikatzeko moduko kalitate-elementuak izango dira kasuko ur artifizialen edo oso aldatutako masaren antza gehien duten azaleko ur naturalen kategoria edo motara aplikatzearen ondoriozkoak.

PHAk 29. eta 30. artikuluek tarteko eta kostaldeko uren egoera ekologikoaren sailkapenerako beharrezkoak diren kalitate-elementuak zehazten dituzte (3. taula).

3. taula Egoera ekologikoaren sailkapenerako kalitate biologikoaren adierazleak. PHAk 29. eta 30. Artikuluak.

Kategoria	Adierazle biologikoak
Tarteko urak	Fitoplanktonaren konposizioa, ugaritasuna eta biomasa
	Bestelako flora urtarraren konposizioa eta ugaritasuna
	Ornogabe bentikoen konposizioa eta ugaritasuna
	Arrainen konposizioa eta ugaritasuna
Kostaldeko urak	Fitoplanktonaren konposizioa, ugaritasuna eta biomasa
	Bestelako flora urtarraren konposizioa eta ugaritasuna
	Ornogabe bentikoen konposizioa eta ugaritasuna

UEZaren arabera, egoera ekologikoaren balorazioa adierazle biologiko bakoitzaren balorazio txarrenak mugatzen du (*“bat kanpoan, denak kanpoan”* (BKDK) printzipioa). Hau da, adibidez, fitoplanktonak egoera neurritzkoa badu, eta gainontzeko elementuek egoera biologiko ona azaltzen badute, egoera ekologikoaren balorazioa neurritzkoa izango da gehienez. Egoera ekologikoaren kalkulurako, kalitate biologikoa oso ona edo ona denean bakarrik hartzen da kontuan kalitate fisiko-kimikoa. Bestalde, adierazle hidromorfologikoak egoera oso ona edo ona den bereizteko erabiltzen dira soilik (ahalmen ekologikoaren balorazioan ez dira aintzat hartzen) (3. irudia).



3. irudia Uren Esparru Zuzendarauan oinarritutako egoera ekologikoaren kalifikazio prozesua 817/2015 Errege-Dekretuaren arabera.

Egoera ekologikoa zehazteko egoera biologikoaren balorazioa eta eragina daukaten adierazle fisiko-kimikoak (baldintza fisiko-kimiko orokorrak eta substantzia preferenteak) hartzen dira kontuan.

Ur-masak tipologiatan multzokatzea baliogarria da bakoitzari bere ezaugarri naturalak eta asaldurarik gabeko balioak zehazteko. Honela, egoera ekologikoaren baloraziorako hain beharrezkoak diren erreferentziako baldintzak eta ingurumen-helburuak ezar daitezke tipologia bakoitzarentzat, kalitate biologikoko adierazleei eta kalitate fisiko-kimikoaren adierazleei dagozkienak (3. taula).

Egoera ekologiko *“ona”* definizioak beragan darama aldaketa gabeko edo erreferentziako baldintzekiko desbideratzearen kontzeptua. Hala, egoeraren kontrol-sistemak erabili behar dira, zeinak gai izango baitiren kalitate biologikoaren adierazleen balioak kalkulatu eta erreferentziako baldintzekiko desbideratze-maila zenbatesteko.

Adierazle bakoitza hainbat metriken edo parametroren azterketaren emaitza da eta, normalean, adierazleak indize multimetrikoetan integratzen dira. 2014ean, AZTIk URarentzat *“EAEko azaleko ur-masen egoeraren jarraipenerako laginketa, laborategi eta indize eta metriken kalkulurako protokoloak”* prestatu zituen. Protokolo horiek tarteko eta kostaldeko ur-masetan aztertzen diren fitoplankton, makroalga eta ornogabe bentikoen azterketarako metodoak azaltzen dituzte eta baita tarteko ur-masetan ebaluatzen diren arraintzak ere. Protokolo horiek dohainik jaitsi daitezke URaren

webgunetik⁴. Uren eta sedimentuen ezaugarri fisiko-kimikoentzat ere prestatu dira protokoloak.

Adierazle biologikoei dagokienez, kontrol-sistema optimoetan, ur-masa batean behatutako balioen eta ur-masari dagozkion erreferentziazko baldintzen balioen arteko proportzioa zehaztuko litzateke. Erlazio horri, EQR esaten zaio (*Ecological Quality Ratio*) eta zero eta bat arteko balioak hartuko litzateke. EQR horren arabera, bost egoera posible daude: oso ona, ona, neurrizkoa, eskasa eta txarra.

Azaleko ur-masetako adierazle biologikoen kasuan, ur-masen egoera ekologikoa ona izatea da ingurumen-helburua, hau da: UEZko adierazle biologiko bakoitzak EQR jakin bat betetzea. Egoera oso ona eta egoera onaren arteko mugaren balioa, eta egoera ona eta egoera neurrizkoa bereizten dituen balioa, Europako Batzordeak sustatutako interkalibrazio-ariketaren bidez zehaztu dira.

Gaur egun, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren tarteko eta kostaldeko ur-masen erreferentziazko baldintzak eta egoera-klaseen arteko mugak Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren PHAren 5. artikuluan jasotzen dira (1/2016 Errege-Dekretua)

Kostaldeko uretan hainbat adierazle biologikorentzat ebaluazio-sistemak eta erreferentziazko baldintzak ezarrita daude, adibidez: *Spanish Phytoplankton Tool* (fitoplanktonarentzat); M-AMBI (substratu biguneko makroornogabe bentikoentzat); CFR eta RICQI (makroalgentzat). Bestalde, tarteko uretan, AFI (arrainentzat), M-AMBI eta *Spanish Phytoplankton Tool* adierazle biologikoak interkalibratuta daude. Hala ere, fitoplanktonaren kasuan, “*klorofila*” metrika besterik ez dago interkalibratuta.

Europar Batzordeak, 2018an, interkalibrazioaren emaitzak argitaratu ditu. Kostaldeko angiospermen kasuan, Demarkazioko uretan era natural batean ez daudela aitortzen da. Bestalde, tarteko uretan, makroalgak aztertzen diren arren, ez dira interkalibratu, Kantauriko tarteko urak elementu biologiko honen garapenerako egokiak ez direla onartzen baita.

PHAren 26. artikuluan **egoera kimikoa** sailkatzeko “*azaleko uren egoera kimikoa egoera onean edo ona baino okerrago bezala sailkatuko da*” esaten da, hau da: egoera ona erdiesten den ala ez aztertu behar da. Egoera kimikoa ezartzeko 817/2015 Errege-Dekretuan ezarritako IKAk hartzen dira oinarri. Horren harira, uretan, sedimentuetan edo biotan dagoen kutsatzaile jakin baten edo kutsatzaile jakin batzuen kontzentrazioa, ingurumena eta giza osasuna zaintzeko gainditu behar ez dena da IKA. Atalase horiek honela adieraz daitezke: kontzentrazio onargarririk handiena (IKA-KOH) edo urteko batez besteko kontzentrazioa (IKA-UB).

Jarraipen-sare honetan egoera kimikoaren ebaluaziorako ez dira kontuan hartu 817/2015 Errege-Dekretuko IV eta V eranskinetan azaltzen diren substantzia guztiak. Neurtu direnak 4. taulan azaltzen dira. Serie historikoarekin jarraitzeko, analisia egiteko ahalmena dagoelako eta kutsatzaileen iturri posibleak ezagutzen direlako, besteak beste, aukeratu dira substantzia horiek.

⁴ http://www.uragentzia.euskadi.eus/u81-000334/es/contenidos/informacion/protocolos_estado_aguas/es_def/index.shtml.

4. taula 2018an aztertutako lehentasunezko substantziak eta beste kutsatzaile batzuk.

Substantzia
DDT guztizkoa
(1,1,1-trikloro-2,2-bis-(p-klorofenil)-etano (CAS 50 29 3), 1,1,1-trikloro-2-(o-klorofenil)-2-(p-klorofenil)- etano (CAS 789 02 6), 1,1-dikloro-2,2-bis-(p-klorofenil)-etilen (CAS 72 55 9), eta 1,1-dikloro-2,2-bis-(p-klorofenil)-etano (CAS 72 54 8) isomeroen batura
p,p-DDT
Hexakloroziklohexanoa (HCH)
Benzo(a)pirenoa
Benzo(b)fluorantenoa
Benzo(k)fluorantenoa
Benzo(g,h,i)perilenoa
Indeno(1,2,3-cd)pirenoa
Antrazenoa
Kadmio eta bere konposatuak
(uraren gogortasunaren (mg CaCO ₃ /L) arabera bost klase: klase I: < 40; klase II: 40tik <50ra; klase III: 50tik <100ra; klase IV: 100tik <200ra; klase V: ≥50)
Fluorantenoa
Beruna eta bere konposatuak
Merkurioa eta bere konposatuak
Naftalenoa
Nikela eta bere konposatuak
Ziklodieno motako plagizidak
Aldrin (CAS 309-00-2), Dieldrin (CAS 60-57-1), Endrin (CAS 72-20-8), Isodrin (CAS 465-73-6) batura sartzen da
Zinka
Kobrea

817/2015 Errege-Dekretuaren IV eranskinaren arabera, azaleko ur-masa batek IKA-UB betetzen du urtean zehar egindako neurketen batezbesteko aritmetikoak araua gainditzen ez duenean, ur-masaren lagintze-puntu adierazgarri bakoitzean; eta azaleko ur-masa batek IKA-KOH betetzen du ur-masaren edozein lagintze-puntu adierazgarriko kontzentrazioak araua gainditzen ez duenean.

Ur-masa mailan, IKAak betetzea (lehentasunezko kutsatzaileentzat eta besteentzat, zein substantzia preferenteentzat) honela balioztatzen da:

- Ur-masa bateko lagintze-puntu guztietan substantzia baten kontzentrazioa lagintze guztietan detekzio-muga baino baxuagoa bada, IKA-UB eta IKA-KOH ez dira gainditzen eta, beraz, ur-masak egoera kimiko ona erdiesten du.
- Aurreko puntuan ezarritakoa gertatzen ez bada, lagintze-puntu bakoitzerako KGUB (Lagintze-puntu Urteko Batezbestekoa) kalkulatu da. Ur-masa bateko lagintze-puntuen KGUBen batezbestekoak (lagintze-puntu bakoitzaren adierazgarritasunarekiko haztatuz) IKA-UB gainditzen badu, ur-masak egoera kimiko ona ez du erdiesten (xehetasun gehiagorako ikusi txostenaren 1.4 atala, Ebaluazio orokorreko estrategia).
- Beste alde batetik egoera kimiko ona erdiesteko, ez du IKA-KOH gainditu behar ur-masaren lagintze-puntu bakar batek.

Azkenik, PHAren 26. artikulua arabera, “Azaleko ur-masen **egoera** **egoera** ekologikoaren eta egoera kimikoaren arteko balio txarra da”.

2.

Emaitzak

2.1. 2018KO EGOERAREN EBALUAZIOA

2018ko kanpainan, tarteko 14 ur-masen eta kostaldeko lau ur-masen **egoera ekologikoaren**⁵ laburpen gisa ondokoa esan daiteke (4. irudia, 5. taula):

- **Egoera edo ahalmen ekologiko txarra:** 2018an Oka barrualdeko tarteko ur-masa da egoera ekologiko txarra azaltzen duen bakarra. Kasu honetan fitoplanktonaren egoerak mugatzen du egoera ekologikoa.
- **Egoera edo ahalmen ekologiko eskasa:** Ur-masa bakar batek ere ez du egoera ekologiko eskasik azaltzen 2018an.
- **Egoera edo ahalmen ekologiko neurritzkoa:** guztira tarteko bost ur-masa daude egoera edo ahalmen ekologiko neurritzkoan: Barbadun, Nerbioi kanpoaldea, Lea, Artibai eta Oiartzun. Lean egoera neurritzkoa arrainen egoerari zor zaio; Nerbioi kanpoaldean, baldintza fisiko-kimikoei; Barbadun eta Artibain, makroornogabe bentikoei; eta Oiartzunen, fitoplanktonari.
- **Egoera edo ahalmen ekologiko ona:** guztira 10 ur-masa sailkatzen dira egoera edo ahalmen ekologiko onean: tarteko sei ur-masa (Butroe, Oka kanpoaldea, Deba, Urola, Oria eta Bidasoa), oso aldatutako bi ur-masa (Nerbioi barrualdea eta Urumea) eta kostaldeko bi ur-masa (Getaria-Higer eta Monpas-Pasaia).
- **Egoera ekologiko oso ona edo ahalmen ekologiko maximoa:** Egoera ekologiko oso ona azaltzen duten bi ur-masak kostaldeko Kantabria-Matxixako eta Matxixako-Getaria dira.

Guztira bi ur-masek ez dute **egoera kimiko** onik erdiesten (4. irudia). Industria gehien (meatzaritza eta industrien arroak), portuak edota saneamendu osatugabea dutenak dira, hala nola: Nerbioi barrualdea eta kanpoaldea. Gainontzeko ur-masak, eta euskal kontinente-plataformako hiru lagintze-puntuak, egoera kimiko onera heltzen dira.


Tarteko uretan 2018an hauteman diren IKAen ez-betetzeak ondoko substantziei zor zaizkie: hexakloroziklohexano (HCH) eta kadmioari Nerbioi barrualdean, eta HCHari Nerbioi kanpoaldean. Batzuetan, zenbait substantziak (esaterako, HCHak) eragindako kutsadurak kronikoa dirudi. Hala ondorioztatzen da ur-masa horietan egin diren lagintze intentsibo eta estentsiboetatik (Larreta *et al.*,

⁵ Eranskinean tarteko eta kostaldeko ur-masetako lagintze-puntu bakoitzari dagozkion datuak ikus daitezke (0).

2019a). Beste batzuetan (Cd), kutsadura aldizkakoa da eta ez da aldiro-aldiro errepikatzen. Bidasoan TBT mailak IKA gairitu izan du iraganean, ur-masa honetan egin diren azterketa intentsiboetan ikusi denez (Larreta *et al.*, 2019b), baina, gaur egun, substantzia honi dagokion IKA betetzen da.

Horregatik, 2018an **egoera ona** betetzen duten ur-masak Butroe, Oka kanpoaldea, Deba, Urola, Oria, Urumea eta Bidasoako tarteko ur-masak eta kostaldeko lau ur-masak dira (Kantabria-Matxitxako, Matxitxako-Getaria, Getaria-Higer eta Monpas-Pasaia). Gainontzeko ur-masak ez dute egoera onik erdiesten, egoera ekologiko edo/eta kimiko onik ez dutelako.

Ur-masa guztien artean, Nerbioi barrualdea da, egoera kimikoa ez erdiesteagatik, egoera onik ez duen ur-masa bakarra, egoera ekologiko ona izanik.



4. irudia Euskal Autonomia Erkidegoko tarteko eta kostaldeko ur-masen egoera/ahalmen ekologikoa eta egoera kimikoa (irudian eta izenean azpimarratuta) 2018an.

5. taula Egoeraren diagnostikoa 2018an. Euskal Autonomia Erkidegoko tarteko eta kostaldeko ur-masa bakoitzari dagokion balioespena. (Gakoak: Makroornogabeak, arrainak, fitoplanktona, makroalgak, egoera biologikoa, baldintza orokorrak eta egoera ekologikoa: oso ona (OO urdina), ona (O berdea), neurritzkoa (N horia), eskasa (E laranja) eta txarra (T gorria). Substantzia preferenteak: oso ona (OO; urdina), ona (O; berdea), eta egoera ez da ona (EZO; gorria). Egoera kimikoa: ona (O; urdina), eta egoera ez da ona (EZO; gorria). Egoera globala: ona (O; urdina) eta ona baino okerragoa (OBO; gorria). Oharra: tarteko masetan makroalgen ebaluazioa ez da aintzat hartzen egoera biologikoa eta ekologikoa zehazteko. Ur-masa oso aldatuen kasuan (ikus 2. taula) adierazle biologiko eta egoera ekologikoaren balioespenak ahalmenari dagozkie.

Tarteko ur-masa	Makroornogabeak	Arrainak	Fitoplanktona	Makroalgak	Egoera biologikoa	Baldintza orokorrak	Substantzia preferenteak	Egoera ekologikoa	Egoera kimikoa	Egoera globala
Barbadun	N	O	OO	N	N	OO	OO	N	O	OBO
Nerbioi barrualdea	OO	OO	O	E	O	O	OO	O	EZO	OBO
Nerbioi kanpoaldea	OO	O	O	N	O	N	OO	N	EZO	OBO
Butroe	O	O	OO	N	O	O	OO	O	O	O
Oka barrualdea	E	O	T	N	T	N	OO	T	O	OBO
Oka kanpoaldea	O	O	O	N	O	O	OO	O	O	O
Lea	OO	N	OO	N	N	OO	OO	N	O	OBO
Artibai	N	O	OO	N	N	OO	OO	N	O	OBO
Deba	O	O	OO	N	O	OO	OO	O	O	O
Urola	O	O	OO	N	O	OO	OO	O	O	O
Oria	OO	O	OO	N	O	OO	OO	O	O	O
Urumea	O	OO	OO	N	O	OO	OO	O	O	O
Oiartzun	OO	OO	N	N	N	O	OO	N	O	OBO
Bidasoa	OO	OO	O	N	O	OO	OO	O	O	O

Kostaldeko ur-masa	Makroornogabeak	Fitoplanktona	Makroalgak	Egoera biologikoa	Baldintza orokorrak	Substantzia preferenteak	Egoera ekologikoa	Egoera kimikoa	Egoera globala
Kantabria-Matxitxako	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	O	O
Matxitxako-Getaria	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	O	O
Getaria-Higer	OO	O	OO	O	OO	OO	O	O	O
Mompás-Pasaia	OO	OO	O	O	OO	OO	O	O	O

2.2. 2013-2018 ALDIAREN EGOERAREN AZTERKETA

2.2.1. Egoera ekologikoaren eta egoera kimikoaren bilakaera

Atal honetan, 14 tarteko ur-masen eta kostaldeko lau ur-masen 2013-2018 aldiaren egoera ekologikoaren, egoera kimikoaren eta egoera globalaren bilakaera laburbiltzen da.

1995ean *Jarraipen-sarea* hasi zenetik, egoera ekologikoaren, egoera kimikoaren eta egoera globalaren bilakaera aztertzea zaila da hainbat urtetan egin zaizkion aldaketengatik. Aipatzekoak dira:

- Lagintze-puntu kopuru ezberdina dela-eta (1995ean, 1998an, 2002an eta 2006an aldaketak egin dira), ur-masen bilakaera alderatzea zaila da (hala ere, konparaketa lagintze-puntuka egin daiteke).
- Egoera ekologikoa aztertzeko erabili den metodologian aldaketak egon dira (bereziki 1995-2001 eta 2002-2011 aldietan metodo bateratzaile bat erabili zelako, 2013-2018an, BKDK irizpidea erabili delarik).
- 1995-2001 bitartean ez dago daturik elementu batzuentzat (adibidez, fitoplankton eta makroalgen kasuan eta, hein txikiago batean, arrainetan).
- Interkalibrazioa egin ostean metodo batzuk aldatu egin dira (itsasertzeko makroalgak eta arrainak).

Hala ere, 2013-2018 bitartean ebaluazio irizpide homogeenak, lagintze-puntu kopuru egonkorra, eta kontrolerako estrategia eta adierazle berberak daudenez, irizpide bakar bat erabiliz azter daiteke bilakaera (6. taula, 5. irudia, 6. irudia, 7. irudia).

6. taula Tarteko eta kostaldeko ur-masen egoeraren bilakaera 2013-2018 bitarteko. (Gakoak: egoera ekologikoa: oso ona (OO urdina), ona (O berdea), neurrizkoa (N horia), eskasa (E laranja) eta txarra (T gorria). Egoera kimikoa: ona (O; urdina), eta egoera ez da ona (EZO; gorria). Egoera globala: ona (O; urdina) eta ona baino okerragoa (OBO; gorria). Oharra: Ur-masa oso aldatuen kasuan (ikusi 2. taula) adierazle biologiko eta egoera ekologikoaren balioespenak ahalmenari dagozkie.

UR-MASA	EGOERA EKOLOGIKOA						EGOERA KIMIKOA						EGOERA GLOBALA					
	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Getaria-Higer	OO	OO	O	O	O	O	O	O	O	O	O	O	O	O	O	O	O	O
Monpas-Pasaia	O	O	O	O	O	O	EZO	O	O	O	O	O	OBO	O	O	O	O	O
Matxitxako-Getaria	O	OO	O	OO	OO	OO	O	O	O	O	O	O	O	O	O	O	O	O
Kantabria-Matxitxako	O	O	O	O	O	OO	O	O	O	O	O	O	O	O	O	O	O	O
Bidasoa	N	N	N	O	O	O	O	EZO	EZO	O	O	O	OBO	OBO	OBO	O	O	O
Oiartzun	N	N	N	N	N	N	O	EZO	EZO	O	O	O	OBO	OBO	OBO	OBO	OBO	OBO
Urumea	O	O	O	O	O	O	O	O	O	O	O	O	O	O	O	O	O	O
Oria	O	O	N	N	N	O	O	O	O	O	O	O	O	O	OBO	OBO	OBO	O
Urola	O	N	O	O	O	O	O	EZO	O	O	O	O	OBO	O	O	O	O	O
Deba	O	O	O	O	O	O	O	O	O	EZO	O	O	O	O	O	OBO	O	O
Artibai	N	E	O	N	N	N	O	EZO	EZO	O	O	O	OBO	OBO	OBO	OBO	OBO	OBO
Lea	E	O	O	O	N	N	O	O	EZO	O	O	O	OBO	O	OBO	O	OBO	OBO
Oka barrualdea	T	E	T	E	E	T	EZO	O	EZO	EZO	O	O	OBO	OBO	OBO	OBO	OBO	OBO
Oka kanpoaldea	T	N	N	N	O	O	O	O	O	O	O	O	OBO	OBO	OBO	OBO	O	O
Butroe	O	O	O	O	O	O	O	EZO	O	O	O	O	O	OBO	O	O	O	O
Nerbioi barrualdea	O	N	N	N	N	O	EZO	EZO	EZO	EZO	EZO	EZO	OBO	OBO	OBO	OBO	OBO	OBO
Nerbioi kanpoaldea	O	O	O	O	O	N	EZO	EZO	EZO	EZO	EZO	EZO	OBO	OBO	OBO	OBO	OBO	OBO
Barbadun	O	O	O	O	O	N	O	O	O	O	O	O	O	O	O	O	O	OBO

Kostaldeko ur-masek, oro har, ingurumen-helburuak betetzen dituzte, egoera ekologiko oso on edo oneko balioespenekin. Monpas-Pasaia ur-masak 2012an egoera eskasa izan zuen arren (makroalgen egoeraren ondorioz), hoberanzko joera azaltzen du, isuriak Murgita senaiatik desbideratu zirenetik. Bestalde, nahiz eta, zenbaitetan, IKAk ez bete (adibidez, Monpas-Pasaia ur-masan, 2013an, benzo(a)pireno edo/eta kadmioagatik), kostaldeko ur-masetan egoera kimiko ona erdiesten da, orohar. Hemen, aipatzekoa da, aztertutako kutsatzaile bakoitzari BKDK printzipioa ezartzen zaiola eta, hortaz, egoera kimikoaren helburuak ez betetzeko aukera handia dela.

Aldiz, tarteko ur-masetan IKAen betetze-maila eskasagoa da. Butroe, Deba eta Urumea tarteko ur-masek bakarrik erdiesten dute egoera ekologikoa urtero. Barbadun, Nerbioi kanpoaldea eta Urola ur-masek, bat ez beste urte guztietan dute egoera ekologiko ona. Gehienetan, egoera ekologikoa erdiesten ez den urteetan, egoera neurrizkoa dute ur-masek. Salbuespen dira: Oka barnealdea (saneamendua ez dago osatuta), zeinak egoera eskasa edo txarra baituen gehienetan; eta Lea eta Artibai, egoera eskasa izan baitzuten urteetako batean.

Orohar, egoera ona ez lortzearen arrazoiak arrainei, makroornogabe bentikoei eta fitoplanktonari zor zaie. Bestetik, badira zenbait substantzien kutsadura kronikoagatik (HCH) etengabe egoera kimiko onera heltzen ez diren ur-masak (Nerbioi barrualdea eta kanpoaldea). Egoera kimiko onik erdiesten ez duten beste ur-masak Oka barrualdea (hiru urtetan), eta Lea, Artibai, Oiartzun eta Bidasoa (bi urtetan) dira. Barbadun, Oria eta Urumea ur-masak dira urte guztietan egoera kimiko ona azaldu duten bakarrak. Egoera kimikoko IKAk ez betetzearen arrazoiak HCH, benzo(g,h,i)perileno+Indeno(1,2,3-cd)pireno, naftaleno, kadmio, nikel eta berunaren kontzentrazioei zor zaie, besteak beste.

Oso aldatutako ur masa batzuetan (Nerbioi kanpoaldea eta Urumea) egoera ekologiko ona gehiagotan erdiestea kalitate-helburuak ur-masa naturalenak baino baxuagoak izateari zor izango zaio ziur aski. Hala ere, gogoan izan behar da Urumeak beti erdiesten duela egoera kimiko ona.


Bi egoera horiek (egoera ekologikoa eta egoera kimikoa) aintzat hartuz gero, tarteko 14 ur-masetatik bakar batek, Urumeak, erdiesten du egoera orokor ona 2013-2018 bitarteko urte guztietan.

Lehen aipatu den BKDK printzipioa erabiliz erdietsitako emaitzak ulertzeko, egoera ekologikoaren balioespenaren analisisia (7. taula eta 5. irudia) adierazle edo elementu banaka egitean, ondokoa aipatu daiteke:


- **Baldintza fisiko-kimiko orokorrak.** 2013-2018 bitarteak kostaldeko lau ur-masek, eta tarteko Barbadun, Butroe, Oka kanpoaldea, Lea, Deba, Oria, Urumea eta Bidasoa ur-masek betetzen dituzte urtero ingurumen-helburuak. Azken sei urteotan ingurumen-helburuak betetzen ez dituen ur-masa bakarra Oka barrualdea da eta, lehen esan denez, saneamendu eskasagatik dela uste da. Gainontzeko ur-masek gorabeherak azaltzen dituzte.
- **Substantzia preferenteak.** Neurtutako substantzia guztien ingurumen-helburuak betetzen dira ur-masa eta urte guztietan.
- **Fitoplanktona.** Fitoplanktonaren ingurumen-helburuak ur-masa eta urte gehienetan betetzen dira, Oka barrualdean eta Oiartzunen izan ezik, non sistematikoki ez baitiren betetzen. Hainbat aldiz aipatu denez, saneamendurik ez dagoen inguruetako bat da Oka; Oiartzun, berriz, degradazio historikotik leheneratze-bidean dago. Oiartzunen egoera onetik neurrizkora pasatzearen arrazoia lehen zegoen uhertasuna fitoplanktonen hazkunderako muga izateari zor lekiok, eta orain dagoen gardentasun handiagoak muga hori lausotzeari.
- **Makroalgak.** 2013-2018 bitartean kostaldeko lau ur-masek makroalgen ingurumen-helburuak betetzen dituzte. tarteko ur-masetan, bestalde, makroalgak ez dira kontuan hartzen egoera ekologikoaren balioespen orokorra egiteko, nahiz eta aztertzen diren.
- **Makroornogabe bentikoak.** Urte eta ur-masa gehienetan ingurumen-helburuak betetzen dira. Baina, sistematikoki, Oka barrualdean eta Artibain ez dira betetzen eta beste ur-masa batzuetan ere (Barbadun eta Oka kanpoaldea) betetzen ez diren urteak badira. Gogoratu behar da Okan saneamendua ez dagoela guztiz bukatuta (eta Gernikako hondakin-uren araztegia ez dabilela behar bezala), Artibain dragatze-lan handiak burutu direla eta Barbadunen leheneratze lanak egin direla CLH inguruan.
- **Arrainak.** Aztertu den bitarte osoan betetzen dira arrainen ingurumen-helburuak Barbadun, Nerbioi barrualdea, Nerbioi kanpoaldea, Butroe, Deba, Urola, Oiartzun eta Urumean. Gainontzeko ur-masetan arrainen egoera neurrizkoa da, Lean izan ezik, non egoera eskasa hauteman baitzen 2013an.

Egoera kimikoari dagokionez, 2013-2018 bitartean tarteko uretan helburuen betetze-maila %50 eta %85 artekoa da (6. irudia). Kostaldeko ur-masetan egoera kimikoaren helburuen betetze-maila handiagoa da: %75 eta %100 artekoa (6. irudia). Txosten honetan esan den bezala, lehentasunezko hainbat substantzia neurtzeak eta BKDK printzipioa jarraitzeak, ingurumen-helburuak gainditzea errazten du eta, beraz, egoera kimikoa ez betetzeko arriskua handiagoa da. Hala ere, ez da egoera txarra luzaroan mantentzen.


Egoera globala balioztatzeko, egoera ekologikoaren eta egoera kimikoaren arteko baliorik txarrena hartzen denez, egoera globala betetzen ez duten kasuak igotzea zentzuzkoa da. Honela, egoera globalari dagokionez, tarteko uretan %35 eta %50 artean dago betetze-maila eta kostaldean, %75 eta %100 artean (7. irudia).



5. irudia Tarteko eta kostaldeko ur-masen egoera/potentzial ekologikoaren bilakaera 2013-2018 bitartean. Oso ona edo maximoa (OO edo OO; urdina), ona (O edo O; berdea), Neurritzkoa (N edo NP; horia), eskasa (E edo E; laranja) eta txarra (T edo T; gorria).



6. irudia Tarteko eta kostaldeko ur-masen egoera kimikoaren bilakaera 2013-2018 bitartean.



7. irudia Tarteko eta kostaldeko ur-masen egoera globalaren bilakaera 2013-2018 bitartean.

7. taula Tarteko eta kostaldeko ur-masen egoera ekologikoaren adierazleen bilakaera 2013-2018 bitarteko. (Gakoak: Makroornogabeak, arrainak, fitoplanktona, makroalgak, egoera biologikoa, baldintza orokorrak eta egoera ekologikoa: oso ona (OO urdina), ona (O berdea), neurritzkoa (N horia), eskasa (E laranja) eta txarra (T gorria). Substantzia preferenteak: oso ona (OO; urdina), ona (O; berdea), eta egoera ez da ona (EZO; gorria). Oharra: Ur-masa oso aldatuen kasuan (ikusi 2. taula) adierazle biologiko eta egoera ekologikoaren balioespenak ahalmenari dagozkio.

	Makroornogabe bentikoak						Fitoplanktona						Makroalgak					
	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2013	2014	2015	2016	2017	2018
UR-MASA	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	O	O	O	O	OO	OO	OO	OO	OO	OO
Getaria-Higer	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	O	O	O	O	OO	OO	OO	OO	OO	OO
Monpas-Pasaia	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	O	O	O	O	O	O
Matxitxako-Getaria	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	O	O	O	O	O	O
Kantabria-Matxitxako	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	O	O	O	O	O	O
Bidasoa	OO	O	OO	OO	O	OO	OO	OO	O	O	O	O	O	O	O	N	N	N
Oiartzun	O	O	OO	OO	O	OO	N	N	N	N	N	N	O	O	O	N	N	N
Urumea	O	O	O	OO	O	O	OO	OO	OO	OO	OO	OO	N	N	N	N	N	N
Oria	OO	O	OO	O	O	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	O	O	N	N	N	N
Urola	O	O	O	O	O	O	OO	OO	O	O	O	O	O	O	O	N	N	N
Deba	O	O	O	O	O	O	OO	OO	OO	OO	OO	OO	N	N	N	N	N	N
Artibai	N	E	O	N	N	N	O	O	OO	OO	OO	OO	T	E	E	E	N	N
Lea	OO	O	OO	OO	O	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	N	N	N	N	N	N
Oka barrualdea	T	E	T	O	E	E	N	N	N	E	E	T	O	O	O	O	N	N
Oka kanpoaldea	T	O	O	O	O	O	O	O	O	O	O	O	O	O	O	O	N	N
Butroe	O	O	O	O	O	O	OO	OO	OO	OO	OO	OO	O	O	O	O	N	N
Nerbioi barrualdea	O	O	O	OO	O	OO	OO	OO	OO	OO	OO	O	E	E	E	E	E	E
Nerbioi kanpoaldea	OO	OO	OO	OO	OO	OO	O	O	O	O	O	O	O	O	N	N	N	N
Barbadun	OO	O	O	OO	O	N	OO	OO	OO	OO	OO	OO	N	N	E	E	E	N

UR-MASA	Arrainak						Baldintza fisiko-kimiko orokorrak						Substantzia preferenteak					
Getaria-Higer							OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO
Monpas-Pasaia							OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO
Matxitxako-Getaria							OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO
Kantabria-Matxitxako							OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO
Bidasoa	N	N	N	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO
Oiartzun	O	O	O	OO	OO	OO	O	O	O	O	O	O	OO	OO	OO	OO	OO	OO
Urumea	OO	OO	OO	O	O	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO
Oria	O	O	N	N	N	O	O	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO
Urola	O	O	O	O	O	O	O	N	O	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO
Deba	O	O	O	O	O	O	OO	O	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO
Artibai	N	O	O	O	O	O	O	N	O	OO	O	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO
Lea	E	O	O	O	N	N	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO
Oka barrualdea	N	N	N	N	O	O	N	T	T	E	E	N	OO	OO	OO	OO	OO	OO
Oka kanpoaldea	O	N	N	N	O	O	O	O	OO	O	O	O	OO	OO	OO	OO	OO	OO
Butroe	O	O	O	O	O	O	O	O	OO	O	OO	O	OO	OO	OO	OO	OO	OO
Nerbioi barrualdea	OO	OO	OO	OO	OO	OO	O	N	N	N	N	O	OO	OO	OO	OO	OO	OO
Nerbioi kanpoaldea	O	O	OO	OO	OO	OO	O	O	OO	O	O	N	OO	OO	OO	OO	OO	OO
Barbadun	O	O	O	O	O	O	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO	OO


2.2.2. Adierazleen bilakaera

Gaur egun, *Jarraipen-sareak* 1995.etik erabilitako adierazleen bilakaeraren analisia egitea zaila da, aurretiaz azaldu diren arrazoiengatik. 2013.etik 2018ra erabili izan diren irizpideak homogeneoak dira, baina elementu batzuk neurtzeko metodologia aldatu egin zen aurreko urte batzuetan eta ez da atzera begirako birkalkulurik egin. Hala ere, tarteko, kostaldeko eta kontinente-plataformako lagintze-puntuak kontuan harturik, *Jarraipen-sarea* hasi zenetik aldaketak ebaluatzen saiatu gara.

2.2.2.1. Uren egoera fisiko-kimikoa

Jarraipen-sareko lagintze-puntu bakoitzeko uren kalitate fisiko-kimikoaren bilakaera, 1995 eta 2018 bitartean, 8. irudian eta 11. taulan (Eranskina ikusi) azaltzen da. Gogoan izan behar da parametro fisiko-kimikoak (disolbatutako oxigenoa, mantenugaiak, uhertasuna, etab.) aldagai biologikoen euskarri direla.

8. irudian kostaldeko lagintze-puntu guztiek ingurumen-helburuak betetzen dituztela ageri da. Tarteko uretan, lagintze-puntuen %90ak ingurumen-helburuak betetzen baditu ere, azken urteotan atzerakada gertatu dela dirudi, lagintze-puntuen %75-80ak betetzen baititu orain. Kalitatearen okerragotze hori oxigenoaren bilakaera negatiboari zor zaio, batez ere, Nerbioi (barrualdea eta kanpoaldea) eta Oka estuarioetako zenbait lagintze-puntutan ez baitira ingurumen-helburuak betetzen oxigenoarentzat. Gainontzeko lagintze-puntuek egoera ona dute. Hurrengo urteetan atzerakada hori aldaketa naturalei zor zaien edo beste arazo-mota bati zor zaion ikusi behar da, adibidez saneamendu eta arazketa-sistemei.




8. irudia Euskal Autonomia Erkidegoko tarteko (goian) eta kostaldeko uren (behean) kalitate fisiko-kimikoaren bilakaera eta urteko lagintze-puntuen kopurua (marra beltza). Urdina: Oso Ona; Berdea: Ona; Horia: Neurritzkoa; Laranja: Eskasa eta Gorria: Txarra.

2.2.2.2. Fitoplanktona

12. taulan (Eranskina ikusi) eta 9. irudian *Jarraipen-sareko* lagintze-puntu bakoitzaren eta ur-masa bakoitzaren fitoplankton adierazlearen bilakaera azaltzen da 2007-2018 bitarteko (horren aurretik klorofila bakarrik aztertzen zen eta, beraz, ezin da fitoplanktonaren egoera balioztatu, konposizioa ere behar baita horretarako). Oka barrualdea eta Oiartzun ur-masetan fitoplanktonaren egoera ona betetzen ez bada ere, orokorrean, datu-segida laburra izanik ere, fitoplanktonaren bilakaera positiboa izan dela ikusten da.

Gaur egun, bilakaera positiboa kostaldeko uretan antzematen da lagintze-puntu guztiek ingurumen-helburuak betetzen baitituzte 2007.az gero. Tarteko uretan, berriz, egoera ona betetzen duten lagintze-puntuen ehunekoa %80 ingurukoa da azken urteotan.

Elementu biologiko honek hiri- eta industria-isuriei erantzuten die, eta sistemaren egoera trofikoaren adierazletzat hartzen da. Hala, fitoplanktonaren kalitatearen okerragotzea mantenu gaien isuriei zor izaten zaie; hobekuntza, berriz, saneamendu edo arazketari.



9. irudia Euskal Autonomia Erkidegoko tarteko (goian) eta kostaldeko (behean) ur-masetako fitoplanktonaren bilakaera eta urteko lagintze-puntuen kopurua (marra beltza). Urdina: Oso Ona; Berdea: Ona; Horia: Neurrizkoa; Laranja: Eskasa eta Gorria: Txarra.


2.2.2.3. Makroalgak

13. taulan (Eranskina ikusi) eta 10. irudian *Jarraipen-sareko* makroalgen bilakaera erakusten da 2002-2018 bitarteko lagintze-puntu bakoitzean.

Kasu honetan, ezin da lagintze-puntu edo ur-masa bakoitzaren urtez-urteko bilakaera aztertu, lagintzeak hiru urtean behin egiten baitira eta ur-masa bakoitzean lau zapabost datu baino ez baitaude.

Orokorrean tarteko ur-masetako makroalgen kalitatean ez da inolako bilakaerarik antzematen. 2002-2007 bitartean, lagintze-puntuen %21-22k makroalgen ingurumen-helburuak bete zituen; 2008-2013 bitartean, lagintze-puntuen %50ak; eta 2014-2016 bitartean, lagintze-puntuen %23ak soilik. 2017-2019 hirurtekoan lagintze-puntu bakar bat ere ez da egoera onean aurkitzen. Hala ere, aipatzekoa da, irudian ikusten den balioa 2017 eta 2018 urteei soilik dagokiela, eta 2019ko kanpainak oraindik burutu gabe daudela.

Kostaldeko ur-masetako makroalgen egoerak hoberantz egin duela dirudi, batez ere 2008-2010 hirurtekoetik 2017-2019 hirurtekora (nahiz eta, azken honetan, 2017ko eta 2018ko datuak soilik egon). Honela, %50etik %80ra pasatzen da makroalgen egoera ona betetzen duten lagintze-puntuen ehunekoa.



10. irudia Euskal Autonomia Erkidegoko tarteko (goian) eta kostaldeko uretako (behean) makroalgen kalitatearen bilakaera eta urteko lagintze-puntuen kopurua (marra beltza). Urdina: Oso Ona; Berdea: Ona; Horia: Neurizkoa; Laranja: Eskasa eta Gorria: Txarra.

Elementu biologiko honek, batez ere, hiri eta industrien isurketak bezalako presioei erantzuten dienez, sistemaren egoera trofikoaren adierazletzat hartzen da. Honez gain, habitaten galeragatik sortzen diren aldaketa morfologikoen adierazletzat ere hartzen da. Horregatik, makroalgen kalitatearen okerragotzea mantengaiengatik eta dragatze-lanengatik izaten da; hobekuntza berriz, saneamenduagatik, arazketagatik edo habitaten leheneratzeagatik.


2.2.2.4. Makroornogabe bentikoak

11. irudian eta 14. taulan (Eranskina ikusi) *Jarraipen-sareko* lagintze-puntu bakoitzeko makroornogabe bentikoen bilakaera aztertzen da 1995-2018 bitarteko. Orokorrean, eta beste elementu batzuekin gertatzen den bezala, lagintze-puntu eta ur-masa batzuen kalitatean hobekuntza antzematen da.

Kostaldeko uretako lagintze-puntuen bilakaera positiboa agerikoa da, azken 10 urteotan lagintze-puntu guztiek ingurumen-helburuak betetzen baitituzte. Salbuespen da Getaria-Higer ur-masan kokatzen den L-OI20 lagintze-puntua, zeinak egoera neurizkoa baituen 2018an.

Tarteko uretan ere hobekuntza antzematen da: 1995ean lagintze-puntuen %50 gutxienez egoera onean zegoen, 2007-2018 bitartean %70-80 dagoelarik. 2007an aipatu zen egoera txarra zuten lagintze-puntuak desagertu baziren ere, berriro ere okerraldiak eman zitezkeela, ondorengo urteetan gertatu zen bezala. Hala ere, 2016an arinki hoberantz jo zuen egoerak, lagintze-puntuen %84ak ingurumen-helburuak bete zituztelarik. 2017an makroornogabe bentikoek egoera txarra zuten lagintze-punturik ez zen hauteman eta, 2018an, oso aldatutako Oiartzun ur-masan bakarrik hauteman da egoera txarra.

Tarteko uretan aipatzekoa da Nerbioi, Oria eta Urola estuarioetan eman den hobekuntza handia. Hala ere, badira oraindik ere hobetu behar duten lagintze-puntuak, hala nola: Artibain eta Oka barrualdean, besteak beste.




11. irudia Euskal Autonomia Erkidegoko tarteko (goian) eta kostaldeko uretako (behean) makroornogabe bentikoen kalitatearen bilakaera eta urteko lagintze-puntu kopurua (marra beltza). Urdina: Oso Ona; Berdea: Ona; Horia: Neurritzkoa; Laranja: Eskasa eta Gorria: Txarra.

Jarraipen-sarean makroornogabe bentikoen hainbat presiori erantzuten diotela frogatu da, bai hiri- eta industria-isuriei (materia organikoa, kutsatzaileak, etab.) eta baita presio morfologikoei (dragatze-lanak, itsasoari irabazitako eremuak, etab.) ere. Era berean, ingurunea leheneratzeko ekintzak egin direnean (isurien desbideratzeak, arazketa-lanak, andeatutako habitaten leheneratzea, etab.), elementu biologiko honek ingurunearen hobekuntza hautematen du. Presioa oso handia eta epe luzekoa izan denean, leheneratzeak 15 urte arte behar izan dezake. Aldiz, presioa txikia denean leheneratzea 2-3 urtetan edo lehenago ematen da.

2.2.2.5. Arrainak

15. taulan (Eranskina ikusi) eta 12. irudian arrainen adierazlearen bilakaera islatzen da 1995-2018 bitarteko. *Jarraipen-sarean*, 2002an hasi ziren arrainen adierazleari buruzko lanak. Datu-segida luzeagoak edo datu kopuru handiagoa lantzeko asmoz, beste informazio-iturri batzuetako datuak ere hartu dira aintzat (Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoa, Gipuzkoako Foru Aldundia). Honen ondorioz, urteko lagintze-puntu kopurua aldakorra da (6-21). Aldiz, hiru urtean behin lagindutako puntuak 32-33 dira, azken hirurtekoan izan ezik, hau osatzeko urtebete falta baita.



12. irudia Euskal Autonomia Erkidegoko tarteko uretako arrainen kalitatearen bilakaera eta urteko lagintze-puntu kopurua (marra beltza). Urdina: Oso Ona; Berdea: Ona; Horia: Neurizkoa; Laranja: Eskasa eta Gorria: Txarra. Goian, *Jarraipen-sareko* datuak, Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergokoak eta Gipuzkoako Foru Aldundikoak elkartuta. Azpian, *Jarraipen-sareko* datuak bakarrik.


Orokorrean, aipatutakoa kontuan hartuz, arrainen kalitatearen bilakaeran etengabeko hobekuntza ikusten da. 1995ean lagintze-puntu bakar batek ere ez zuen arrainen egoera onik azaltzen; 2013-2018an, berriz, %75-100ek betetzen du. Hala ere, 2009-2013 bitartean egoera “Txarra” eta “Eskasa” zuten lagintze-puntuen kopurua igo egin zen, laginen %20 izateraino. Egoera txarreko edo eskaseko kasu horiek dragatze-lanei zor izan zitzaizkien batik bat. Hala ere, kasuren batean (Lean, adibidez), ezezaguna da egoera okertzearen arrazoiak. Beharbada, Lean uraren kalitate fisiko-kimikoaren hobekuntza izan liteke egoera honen eragile. Izan ere, uraren uhertasuna gutxitzeak, arrainek, egunez, babeslekua bilatzea eragin lezake eta, ondorioz, arrantzatzea zaildu lezake.

Datu-segida luzeak daudenean (Bilbao-Bizkaia Partzuergoak dituenaren modukoak; Eranskinen 15. taula) nabarmenagoa da joera orokorra hoberanzkoa dela, bereziki Nerbioin eta Butroen.

2.2.2.6. Egoera ekologikoa

Aztertutako elementuetan, lagintze-puntu kopuruan eta elementu batzuk ebaluatzeko metodologian egon diren aldaketak direla eta, 1995-2018 eperako egoera ekologiko orokorraren integrazioa egitea zaila da. Gogoan izan behar da 2011tik aurrera direla homogeneous irizpideak.

13. irudian eta 16. taulan (eranskina ikusi) lagintze-puntu bakoitzeko egoera ekologikoaren bilakaera azaltzen da UEZak eskatzen duen BKDK printzipioa jarraituz. Aurreko txostenetan, 2011ra arte, Borja *et al.* (2004, 2009) lanetan proposatutako metodoaren arabera, aztertutako elementuak haztatuz egiten zen egoera ekologikoaren integrazioa.



13. irudia Euskal Autonomia Erkidegoko tarteko (goian) eta kostaldeko (behean) egoera ekologikoaren bilakaera “bat kanpoan, denak kanpoan” (BKDK) printzipioa aplikatuz eta urteko lagintze-puntuen kopurua (marra beltza). Urdina: Oso Ona (OO); Berdea: Ona (O); Horia: Neurizkoa (N); Laranja: Eskasa (E) eta Gorria: Txarra (T).

BKDK printzipioa aplikatzean ez da bilakaera argirik ikusten, Nerbioi kanpoaldeko edo Urumeako lagintze-puntu batzuetan ezik. Hori gertatzen da elementuren batek egoera ona baino okerragoa azaltzeko aukera handia dagoelako eta, beraz, lagintze-puntuak egoera onera heltzen ez direlako.


1995-2018. datu-segidan elementu guztiak neurtu ez izanak, alderatzeak eta bilakaeraren azterketa egitea zailtzen du. Honek, joerak oso argiak ez izatea dakar.

2002-2018 bitartean, berriz, lagintze-puntuen kopurua egonkorra denez eta aztertzen diren elementuak berdinak direnez hurrengoak ondoriozta daiteke: kalitate kategoria ezberdinak azaltzen dituzten lagintze-puntuen ehunekoa egonkorra da, bai tarteko uretan eta baita kostaldekoetan ere (13. irudia).

1995-2001 bitarteko diagnosiari dagokionez, lagintze-puntuen kopurua handitzearekin bat, kalitate orokorra jaisten dela dirudi. Hau ez da harritzekoa, lagintze-puntu gehiago erabiltzean, punturen batek ingurumen-helburuak ez lortzeko aukera gehiago baitago; gainera, gehitu ziren lagintze-puntu gehienak tarteko uren barrualdean kokatzen ziren, gehienetan kalitate okerragoa zuten tokietan.

2.2.2.7. Egoera kimikoa

